

## **Baztango Udalak kimaketa hondarren bilketa zerbitzua eskeiniko du**

*Heldu den urtarrila eta otsailean zehar Baztango herritarrek kimaketa hondarren bilketa zerbitzua erabili ahal izanen dute*

Udalak hondakin kudeaketa zerbitzua hobetzen jarraitzeko helburuz, etxeetako edo partikularren kimaketa hondarren bilketa zerbitzua paratuko du martxan heldu den urtarrila eta otsailean zehar Baztango herri guztietan.

Kimaketa hondarrak dituzten partikularrek Udaletxean egin beharko dute zerbitzuaren eskaera (bertaratuz, telefonoz edo posta elektronikoz).

Hondakin hauek herri bakoitzean Udaletik zehaztuko den puntu eta epeetan utzi beharko dira eta ongi eta txukun pilatu edo bilduak egon beharko dira hauen bilketa eta ondorengo birrinketa errazteko. Kimaketa hondakin hauek auzo konpost guneetan egituratzaile bezala erabiliko dira.

Erran bezala, eskaera Udaletxean egin behar da 948 580 006 telefonoan (Miren) edota [hondakinak@baztan.eus](mailto:hondakinak@baztan.eus) helbide elektronikoan.

**2015eko abenduaren 23an**

**Informazio gehiago: [hondakinak@baztan.eus](mailto:hondakinak@baztan.eus) 948 580 006 (Miren)**